

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	KOKAPENA ETA AIRE ZABALEKO ZULAKETA MEKANIKOA	Iraupena	90
		Baldintzatua	
Kodea	UF1148		
Lanbide-arloa	ERAUZKETA-INDUSTRIAK		
Lanbide-eremua	Meataritza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Lehergai bidezko aire zabaleko indusketa	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Aire zabaleko zulaketak	Iraupena	240
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Aire zabaleko zulaketaren prestaketa eta oinarriak	Iraupena	50
	Aire zabaleko eskuzko zulaketa.	Iraupena	50
	Aire zabaleko zulaketa-ekipamenduen mantentze-lanak egitea	Iraupena	50

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1378_2 AIRE ZABALEKO ZULAKETAK EGITEA gaitasun-ataleko LB3 eta LB4 lanbide-burutzapenekin

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Aire zabaleko zulaketa gauzatu aurretiko lanetarako ezarritako prozedurak aplikatzea, lan-mota horietarako segurtasun-xedapenak betez.

E1.1 Aire zabaleko indusketetan erabiltzen diren zulaketa-ekipamendu motak deskribatzea: zulaketa-ekipamendu bakoitzaren ezaugarri, osagai, aplikazio eta funtzionamendurako printzipio nagusiak adieraziz.

E1.2 Zulaketa-ahoak eta hagaxka-multzoak bereiztea, zulaketaren ezaugarrien eta higadura-egoeraren arabera egokienak direnak hautatzeko.

E1.3 Zulaketa-lanak egiteko behar diren erremintak, materialak eta lanabesak aipatzea, lanak egikaritzekoan duten funtzioa adieraziz.

E1.4 Zulaketa-ekipamenduaren osagaiak zerrendatzea (errodaje-trena, translazio-motorrak, kontrol-panela, irristailua, mailuaren errota- eta aurreratze-motora eta bestelakoak), bakoitzaren funtzioak eta oinarriko ezaugarriak deskribatuz.

E1.5 Zulaketa-ekipamenduan aginteak, sistemak eta desplazamendu- eta manipulazio-elementuak ez ezik erregai-adierazleak eta makinaren kontrol-panelean dauden bestelakoak ere identifikatzea.

E1.6 Zulagailua martxan jarri aurretik egin beharreko egiaztapenak deskribatzea (honako hauek behatzea: makinaren egitura narriadurarik ote dagoen, pneumatikoetan ihesak ote dagoen, pneumatikoen egoera eta presioa, olio-, erregai- eta hozgarri-mailak), egon litezkeen anomaliak eta dagokion jardun-prozedura identifikatuz, bereziki matxuren kasuan, makina geldiaraztea eragingo dutenak (makina matxuratuta dagoela adierazten duen seinalea jartzea).

E1.7 Elikadura-sareak (elektrizitatea, ura, aire konprimatua) deskribatzea, konexioa ezagutuz, baita horniduran matxurak edo akatsak baldin badaude jarraitu beharreko jardunak ere.

E1.8 Zulaketa-ekipamendua mugitzeko, kokatzeko eta egonkortzeko jarraitu beharreko prozedura deskribatzea, eragiketa horiek gauzatu bitartean makinan kontrolatu behar diren parametroak adieraziz.

E1.9 Zulaketa-ekipamendua, horien baliabideak eta material osagarriak zer baldintzatan garraiatu behar diren deskribatzea, ekipamendua garraio-unitatean kargatzeko, eusteko eta deskargatzeko modua adieraziz.

E1.10 Zulaketa-ekipamendua prestatzeko eta garraiatzeko prozesuak irauten duen bitartean:

- Egon daitezkeen ihesak, pitzadurak, higadurak eta/edo anomaliak detektatzea begi-ikuspen bidez.
- Matxuratutako makinaren kokapena seinaleztatzea.
- Zulaketa-lanabesak hautatzea eta prestatzea.
- Zulaketarako behar diren erremintak, materialak eta baliabide osagarriak prestatzea.
- Ekipamendua mugitzea eta adierazitako lekuan kokatzea.
- Ekipamendua elikadura-sareetara konektatzea.
- Zulaketa-ekipamendua garraio-unitatean kargatzeko, eusteko eta deskargatzeko eragiketetan laguntzea.

A2: Zulaketa-ekipamenduekin jardutea, ekipamenduen funtzionamenduari buruzko eskuliburuaren arabera, eragiketa segurtasun-baldintzetan eta eskatutako eragiketa-errendimenduarekin gauzatzeko.

E12.1 Zulaketa-zutabearen elementuak zerrendatzea, buruko edo hondoko mailua duten ekipamenduei dagozkienak eta hagaxka-multzoa aldatzeko sistemak (eskuzkoa edo automatikoa) adieraziz.

E12.2 Zulaketa-ekipamendua martxan jartzeko eta horrekin jarduteko prozedura deskribatzea, nahi den sakonerako, norabideko eta diametroko zulaketa lortzeko une oro kontrolatu behar diren parametroak (karga-angelua, zulaketa-abiadura, bultzada, ur-emaria,

detrituaren ekorketa) eta makinaren eragiketa-adierazleak (presioak, emariak, tentsioak, pareak) adieraziz, errendimendu ezin hobea lortuz eta barrena-zuloen desbiaziorik, buxaketarik eta ekipamenduaren matxurarik ez izateko.

EI2.3 Zulaketaren luzera lortu ostean, egin beharreko eragiketak zerrendatzea (bultzada gelditzea, barrena-zuloa haizatzea, hagaxka-multzoaren jasotze sistematikoa, ekipamendua jasotzea, zulaketa seinaleztatzea eta estaltzea).

EI2.4 Lanaldi-amaieran egin beharreko jardunak deskribatzea: kokapena, deskonexioa, garbiketa, berrikuspenak, seinaleztapena.

EI2.5 Buruko edo hondoko mailua duten ekipamenduen bitartez barrena-zuloak zulatzeko prozesu batean:

- Hagaxka-multzoa jartzea edo kentzea modu sistematikoan.
- Hauts-atzitzaleari eragitea.
- Argibideetan adierazitako angeluarekin, abiadurarekin eta diametroarekin zulatzea.
- Hautsaren eta zarataren sorrera eta barrena-zuloa buxatzeko aukera kontrolatzea une oro.
- Zuloguneen edo lurreen detektatutako beste edozein anomaliaren presentzia seinaleztatzea.
- Zulatutako barrena-zuloa garbitzea.
- Zulaketa bukatu ostean, ekipamenduak, mahukak, ganibetak eta gainerako materialak jasotzea.
- Ekipamendua zulaketa berrirako agindutako lekura mugitzea.
- Norbera babesteko ekipamenduak behar bezala erabiltzea eragiketetan.

Edukiak:

1. Aire zabaleko zulaketa-eragiketak gauzatu aurreko lanak.

- Aire zabaleko zulaketa-ekipamenduak:
 - Motak.
 - Ezaugarriak.
 - Osagaiak.
 - Aplikazioak.
 - Funtzionamendu-printzipioak.
- Ekipamendua berrikustea:
 - Egon daitezkeen anomaliak.
 - Jarduteko arauak.
 - Seinalizazioa.
- Zulaketa-elementuak hautatzea egin beharreko lanen arabera.
- Erremintak, lanabesak eta materialak prestatzea.
- Elikadura-sareak:
 - Aire konprimatua.
 - Elektrizitatea.
 - Ura.
 - Ekipamenduaren konexioa.
 - Matxurak.
 - Jarduna hornidurak huts eginez gero.

2. Aire zabaleko zulaketa-ekipamenduen garraioa eta desplazamendua.

- Zulaketa-ekipamenduaren garraioa:
 - Kargatzea.
 - Eustea.
 - Garraio-unitatean deskargatzea.
 - Prozedura operatiboa.
- Desplazamendu-sistemak honako hauen gainean:
 - Gurrpilak.
 - Beldar-kateak.
 - Gidariak.
- Ekipamenduaren desplazamendua:
 - Prozedura operatiboa.
 - Kontrolatu beharreko parametroak.
- Lanlekuko kokapena: Kontrolatu beharreko parametroak.
- Egonkortzea: Kontrolatu beharreko parametroak.

3. Aire zabaleko zulaketa-ekipamenduen eragiketa.

- Aurreratzeko eta zulatzeko osagaiak:
 - Iristailua.
 - Biraketa-motorra.
 - Mailuaren aurreratze-motorra.
 - Kontrol-panela.

- Aginteak.
- Adierazgailuak: presioak, emariak, tentsioak, pareak.
- Martxan jartzea:
 - Egiatzapenak.
 - Anomaliak.
 - Matxurak.
- Ahoan sartzea.
- Zulaketa:
 - Kontrolatu beharreko parametroak: abiadura, angelua, bultzada, ur-emaria eta detrituaren ekorketa.
 - Buxaketak.
 - Prozedura operatiboa.
- Anomaliak zulaketan:
 - Zuloguneak.
 - Ura.
 - Lurraren aldaketa esanguratsuak.
- Zulaketa-zikloaren amaiera:
 - Barrena-zuloa garbitzea.
 - Hagaxka-multzoa kentzea.
 - Ekipamendua kentzea.
 - Zulaketa seinaleztatzea eta buxatzea.
- Lanaldi-amaierako eragiketak:
 - Kokatzea.
 - Deskonektatzea.
 - Garbitzea.
 - Seinaleztatzea.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagapenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF1146 Aire zabaleko zulaketaren prestaketa eta oinarriak

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Lehergai bidezko aire zabaleko indusketa